



Gaur ekainaren 7an Lan Hitzarmenik ez sinatu arren lansarien taulak onartu eta Ratioei buruzko akordioa sinatu dugu mahai negoziatzaileko eragile guztiok. Titularren aldetik Partaide eta EIB (zuzendaritza taldearen onespeneren zain), eta sindikatu aldetik LAB eta ELA.

2005ko IGOERAK

• **SOLDATAK**

- Pertsonalgo dozentearentzat batz bestea %4,2
- Zerbitzuetako pertsonalgoarentzat %4,2ko igoera
- Dietak eta antzinatasuna: %3,2ko igoera.

*Ikus eranskina

Eranskinean azaltzen diren taulak indarrean jarriko dira uztaileko nominan.

Atzerapenak ahalik eta azkarren ordainduko dira, finantziario publikoaren nondik norakoak kontuan hartuz.

EAEn 1992an zabaldu zen ituna agortuta dagoela salatu eta marko berri baten beharra ikusten dugu. Akordio hau Hezkuntza sailburu berriari emango diogu beharreko neurriak har ditzan eskatuz.

Akordio honen zutabeak hauexek dira:

- Euskal hezkuntza sistema propioa eskuratzeko ahaleginean, hezkuntza politikaren ildo berriak datozen urteetarako bideratzea, ahal izanez gero, hezkuntza arloko eragile guztien adostasunez.
- Lan arloan eta ikastolei dagokionez, langile doxente eta zerbitzuetakoan lan baldintzak hobetzea.
- Norabide honetan, aipatu lan baldintzak hobetzeko ikastolei finantziario egokia ematea.

RATIOEN AKORDIOA

Ikastoletako erakunde titular (Partaide eta EIB) eta langileen sindikatuen (LAB eta ELA) eduki beharreko irakasle ratioaz eta horien dedikazio ereduari buruzko akordioa lortu dugu.